



gipuzk • a

Euskal ikastaroa eta irakasle etsaminak Arrasaten

Euskaltzaindiak egindako delari erantzunik, laurogeitaz* irakasle bildu ginen Arrasatera,* ostegun,* ostirale* eta larunbat* sainduz. Gehienak hegoaldekoak ginen. Iparraldetik etorritakoak oso guti izan ziren; baina ezin daitেকে esan motel egon zirenik, aktiboki hartu baitzuten parte. Dena dela, ba dirudi, oraindik ere zorioneko muga hori pasatzea larregi* kostatzen zaigula.

Triunfalismoan erori* gabe, hainbeste jende ikustean, benetan poztu nintzela esan behar dut; egia esan, ez nuen horrenbesterik espero. Partaideen adinaren* arabera,* gehienak gazteak ginen, hogei ÷ hogeitamar urte bitartekoak. Hain gazte ez zirenak ere ba ziren, baina ez askorik. Neskak ere urri (zer gertatzen zaizue, emakumearen nazioarteko urteon?), mutilekin konparatuz behintzat.

Ostegun eta ostiralean era bitako mintzaldiak izan ziren.

Hitzaldi batzu,* 2. mailako irakasle titulua lortzeko etsaminari begira prestaturik zeuden. Gala: dialektologia, estilistika eta euskararen historia. Hizlariak: X. Kintana, A. Arrieta eta A. Irigoyen.

Beste hitzaldi batzu, euskal irakasleak prestatzeko eta hobetzeko pentsaturik zeuden. Gala: metodologia. Hizlariak: J. M. Erzibengoa eta Murgiarde senar-emazteak. Murgiarde jaunak, esate baterako, euskara irakasteko entzun-ikus metodo bat nola molda litekeen azaldu zigun. Bestalde, euskararen irakaskuntzari eta euskal alfabetatzeari buruzko mahai ingurukoak ere antolatu ziren. Bazen han zer ikastekorik, zinez!*

Larunbat golzean (martxoaren 29an), kezka hau erabilen neure buruan: Asko ala guti batuko ote gara etsaminetarako? Gero, hamarrak aldean, nire goganbehar* guztiak haizatu egin ziren zeharo: Perrogeitaz irakasle bildu ginen. Ene ustez, irakasle biltze honek esangura garrantzitsua du. Gutlenez bi arrazoin hauengatik:

— Euskal irakasleen artean, ikasteko eta hobeki prestatzeko nahia ikusten da.

— Irakasleek haintzat hartzen dute Euskaltzaindia. Ene ustez, irakasleok indartu egin beharko genuke Euskal Akademia, bera balta euskal titulurik emateko gai den erakunde* bakarra, nahiz eta batzuk haren esanak onhartzen ez dituzten.

Lehen ikastaro honek, irakasle etsaminekin batera, jarraipena merezi duelakoan nago. Ea, guztion artean, oraino klmutan baino ez dagoena, loreztatzera laguntzen dugun! (Jose Ramon Etxebarria)